



PRENTSA OHARRA

Kamera musikako “Spicatto” gazte orkestrak doako kontzertua emango du bihar larunbatean Santa Maria Katedraleko Atarian

- Pozuelo de Alarcóneko (Madril) Musika eta Dantza eskolako 9 eta 18 urte arteko hamabost gaztek osatzen dute biolinek, biolek eta biolontxeloak eratutako taldea
- Emanaldia 19:30ean hasiko da, eta sarrera librea izango da leku guztiak bete arte

Vitoria-Gasteizen, 2019ko urriaren 4an.- Vitoria-Gasteizko Santa Maria Katedraleko atariak kamera musikako “Spicatto” gazte orkestraren kontzertua jasoko du bihar larunbatean, urriaren 5ean. Pozuelo de Alarcóneko (Madril) Musika eta Dantza eskolako 9 eta 18 urte arteko hamabost gaztek osatzen dute. Santa Maria Katedrala Fundazioak antolatutako emanaldia 19:30ean hasiko da, eta sarrera librea izango da leku guztiak bete arte.

“Spicatto” orkestra, biolinek, biolek eta biolontxeloak osatutako kamera taldea da. Kideak, Pozuelo de Alarcóneko (Madril) Musika eta Dantza eskolan musikari gisa prestatzen ari diren eta ekimen horretan parte hartzeko aukeratuak izan diren ikasle gazteak dira. Horrela, “Spicatto” 2006ko martxoan sortu zen elkarte gisa, haurtzarotik musikaren aurreko gustua sustatzeko eta ikasleak harizko musika-tresnen ikasketa zailean motibatuzko xedez.

Zuzendaria Iulian Mihai Cotutiu maisua da, une honetan Pozuelo de Alarcóneko Musika eta Dantza eskolako biolin irakasle ere badena. Jatorriz errumaniarra den Cotutiuk esperientzia handia du zuzendari gisa, eta azken 20 urteetan hainbat herrialdetan aritu da lanean, Suitzan, Frantzian, Italian eta Espainian, hain zuzen ere. Bere curriculumean, besteak beste, Subóticako (Serbia) Nazioarteko Biolin Lehiaketako Lehen Saria eta Madrilgo Erkidegoko Orkestra Gazteen Lehen Saria daude.

“Spicatto” kamera orkestraren **egitarauak** lan hauen interpretazioa jasotzen du:

Francesco GEMINIANI

Grosso Re minorrean Op. 5, 12 zk. "La Follia" Kontzertua

Antonio VIVALDI

Bi biolinerako kontzertua La minorrean Op. 3, 8 zk.

Doru POPOVICI

Codex Caioni Op. 22, 2 zk.